



BATZAR NAGUSIAK
JUNTAS GENERALES
BIZKAIA

PRENTSA OHARRA

18/07/03

Bizkaiko Garraio Publikoaren Plan Estrategikoaren aurrerapena Batzar Nagusien aurrean aurkeztuz esan deutso agur Vicente Reyesek Foru Diputatu izateari

Orain arte Garraio, Mugikortasun eta Lurraldearen Kohesinorako Foru Diputatu izan dan Vicente Reyes, azkenengo aldiz etorri da gaur goizean Bizkaiko Batzar Nagusietako jagokon Batzordera, Gobernuko Bizkaiko Ordezkariorde barri moduan modu ofizialean izendau aurretik. Bere agintaldiaren amaiereragaz bat etorrita, Reyesek Bizkaiko Garraio Publikoaren 2018-2028 Plan Estrategikoaren aurrerapena aurkeztu dau. Sailaren arduradun moduan egin dituan hiru urteetako gertakari garrantzitsuenetakoa dala azpimarratu dau.

Bizkaiko Batzar Nagusietako Garraio Batzordeak gaurko eukan programauta udako oporraldien aurreko azkenengo bilerea, Vicente Reyes Gobernuko Bizkaiko Ordezkariorde barri izendauko ebela jakin aurretik. Holan, bileraz baliatuta, Batzarretako taldeetako bozeroale guztiek euren asmo onenak opa izan deutesiez hiru urtez Aldundiko Garraio arduraduna izan danari, eta Reyesek, taldeakaz batera, Foru Gobernu eusten dabenakaz zein oposizioan dagozanakaz, lankidetzan egindako beharra eskertu dau.

Saioa Vicente Reyesen agerraldiagaz hasi da, berak eskatuta, Bizkaiko Garraio Publikoaren 2018-2028rako Plan Estrategikoaren lehenengo fasearen eukia azaltzeko Batzarretako taldeei. Azkenengo hiru urteetan Aldundiko Garraio arduradunak izan danak azaldu dauenez, dokumentu hori bere agintaldiko hiru aktibo nagusietako bat da, Bizkaiko Mobikortasunaren Agintaritzaren sorkuntzeagaz eta Bilbo Metropolitarraren Lurralde Plan Partzialaren idazketeagaz batera.

Vicente Reyesek azpimarratu dituan datuen artean aitatu behar da Bizkaiko biztanleriaren %90ak, gitxienez garraio publiko modu bi dituala eskura, eta lurraldeko biztanleen %92 garraio publiko geraleku batetik 300 metro baino gitxiagora bizi dala. Aldundiko arduradunak esan dau bere eretxiz argi dagola etorkizuna mobikortasun ekonomikotik, sozialetik eta ingurumenaren aldetik jasangarria izango danetik igaroko dala, eta garraio sare integratzailea, eraginkorra eta herritarrek ondo baloretan dabena eukiteak urtean 359 milioi euroko kostua daukala gogoratuazu dau.

Biztanle guztiek Bizkaiko garraio zerbitzu publikoari eusteak eskatzen dauen diru kopuruaz jabetu beharra Batzarretako taldeen hainbat bozeroalek azpimarratu dabe, bai oposizinoak (Talde Mistoa) baita Gobernuak be (Euzko Abertzaleak). PP taldeko ordezkarieren eretxiz, aurrerapeneko dokumentua ez dago guztiz osatuta, Podemos Bizkaia taldeko batzordekideak zerbitzuaren dimentsino publikoa eta tarifen bardintasuna errebindikau ditu, bozeroale sozialistak emondako datuek plan



BATZAR NAGUSIAK
JUNTAS GENERALES
BIZKAIA

estrategikoa beharrezkoa dala erakusten dabela azpimarratu dau, eta EH Bilduko batzordekideak esan dau beharrezkoa dala lineatan egon daitekezan gain jarreak, txartel bakarraren kostua edo ibilgailu pribadua gitxiago erabilteko neurriak aztertzea.

Azalpen horren ostean, Vicente Reyesek amaierea emon deutso Garraio Foru Diputatu moduan bete dauen epealdiari, EH Bilduk, Bizkaiko Batzar Nagusietan ordezkartzea daukien talde guztiek apirilean onetsi eben Metroaren 4. linearen informazio azterlanaren eta partaidetzan oinarritutako prozesuaren ganean egin deutson ahozko erantzun-eske bati eta Podemos Bizkaia taldeak, Bizkaibuseko linea batzuetan ordutegiak ez beteteari buruz egindako beste bati erantzunez. Gaur arte Garraio Foru Diputatua izan danak, proposamen ia bardin-bardina onetsi zala Eusko Legebiltzarrean esanez erantzun deutso lehenengo erantzun-eskeari eta, hori dala eta, Lakuako Jaurlaritzak dala aitaturako azterlana bere gain hartuko dauena. Podemos Bizkaiak planteau dauen gaiari jagokonez, Reyesek esan dauenez, bere Sailak ibilgailu bakotxaren geo-lokalizaziorako kontrolak egiten ditu, eta autobusen bat, inoiz, kotxetegiara aurreikusi baino lehenago heldu izana posible dan arren, inoiz ez da inor garraio zerbitzu barik itzi.

Vicente Reyes daborduko bileraren buru izan barik, Garraio, Mugikortasun eta Lurraldearen Kohesiorako Batzordea, Podemos Bizkaia taldeak aurkeztutako Arauz Besteko Proposamen biren bozketeagaz osatu da. Lehenengoa, Bizkaibuseko emakidadun guztien autobusetan Aldundiak egiten dauen ikuskaritzan segurtasun sistema guztien proba bat sartzeko, eta bigarrena, genero ikuspegian oinarritutako Bizkaiko garraio mugikortasunaren ganeko azterlana egiteko. Euzko Abertzaleak eta Euskal Sozialistak taldeek osatzen daben gehiengoaren bitartez proposamen biak baztertu egin dira, lehenengoan, gaur egun segurtasuneko protokoloek behar dan moduan funtzionetan dabela uste dabelako, eta bigarrena, euren eretziz, proposamen hori jasota dagolako daborduko, saio horretan bertan gaur arte Garraio Foru Diputatua izan dan Vicente Reyesek bere agerraldiaren hasieran aurkeztu dauen Bizkaiko Garraio Publikoaren 2018-2028 Plan Estrategikoan.



BATZAR NAGUSIAK
JUNTAS GENERALES
BIZKAIA

NOTA DE PRENSA
03/07/18

Vicente Reyes se despide como Diputado Foral presentando ante las Juntas Generales el avance del Plan Estratégico del Transporte Público en Bizkaia

Vicente Reyes, el hasta ahora Diputado Foral de Transportes, Movilidad y Cohesión del Territorio, ha comparecido esta mañana por última vez en la Comisión correspondiente de las Juntas Generales de Bizkaia, antes de que se haga oficial su nombramiento como nuevo subdelegado del Gobierno en Bizkaia. Coincidiendo con el fin de su mandato, Reyes ha presentado el avance del Plan Estratégico del Transporte Público en Bizkaia 2018-2028, que ha destacado como uno de los hitos en sus tres años como responsable del Departamento.

La Comisión de Transportes de las Juntas Generales de Bizkaia había programado para hoy su última reunión antes del periodo estival, antes de que se conociese que Vicente Reyes sería nombrado subdelegado del Gobierno central en Bizkaia. De esta manera, la reunión ha servido para que todos los portavoces de los grupos junteros expresen sus buenos deseos al que durante tres años ha sido responsable foral de Transportes, y para que Reyes agradezca el trabajo en común con todos ellos, ya sea desde los grupos que sustentan al actual Gobierno foral o desde la oposición.

La sesión se ha iniciado con una comparecencia a petición propia del propio Vicente Reyes, que ha explicado a los grupos junteros el contenido de la primera fase de la elaboración del Plan Estratégico del Transporte Público en Bizkaia para el período 2018/ 2028. El que ha sido responsable foral de Transportes en los últimos tres años ha manifestado que este documento constituye uno de los tres grandes activos de su mandato, junto con la creación de la Autoridad de la Movilidad de Bizkaia y la redacción del Plan Territorial Parcial del Bilbao Metropolitano.

Entre los datos a destacar puestos de manifiesto por Vicente Reyes figuran el hecho de que un 90% de la población de Bizkaia está atendida por al menos dos modos de transporte público, o que un 92% de la población del territorio reside a menos de 300 metros de una parada de transporte público. El responsable foral ha expresado su convencimiento de que el futuro pasa por una movilidad económica, social y ambientalmente sostenible, y ha recordado que disponer de una red de transporte integradora, eficaz y bien valorada por la ciudadanía representa un coste anual de 359 millones de euros.

La necesidad de que el conjunto de la población sea consciente del desembolso que supone el servicio público de transporte en Bizkaia ha sido recalcada en sus intervenciones por varios portavoces junteros, tanto de la oposición (Grupo Mixto) como del Gobierno (Nacionalistas Vascos). El representante del PP ha estimado



BATZAR NAGUSIAK
JUNTAS GENERALES
BIZKAIA

incompleto el documento de avance, la de Podemos Bizkaia ha reivindicado la dimensión pública del servicio y la igualdad en las tarifas, el portavoz socialista ha incidido en que los datos avanzados avalan la necesidad de este plan estratégico, y el apoderado de EH Bildu ha puesto el acento en la necesidad de estudiar solapamientos en las líneas, el coste del billete único o medidas para evitar el uso del vehículo privado.

Tras esta exposición, Vicente Reyes ha cerrado su etapa como Diputado Foral de Transportes respondiendo a una pregunta oral de EH Bildu en torno al previsto estudio informativo y proceso participativo de la línea 4 del Metro, aprobada en abril por unanimidad de todos los grupos representados en las Juntas Generales de Bizkaia, y a otra de Podemos en torno a un supuesto incumplimiento de horarios en algunas líneas de Bizkaibus. El hasta hoy Diputado Foral de Transportes ha contestado a la primera señalando que una propuesta prácticamente idéntica fue aprobada en el Parlamento Vasco, por lo que es el Gobierno de Lakua el competente para hacerse cargo de dicho estudio. Respecto a la cuestión planteada por Podemos Bizkaia, Reyes ha asegurado que su Departamento mantiene controles de geolocalización de cada vehículo, y que es posible que algún autobús haya llegado a cocheras antes de lo previsto, pero que en ningún caso se ha dejado a ninguna persona sin servicio de transporte.

Ya sin la presencia de Vicente Reyes, el orden del día de la Comisión de Transportes, Movilidad y Cohesión del Territorio se ha completado con la votación de dos Propositiones No de Norma presentadas por Podemos Bizkaia, la primera relativa a incorporar en las inspecciones de los autobuses de Bizkaibus una prueba de todos sus sistemas de seguridad, y la segunda sobre la realización de un estudio de la movilidad en el transporte de Bizkaia desde la perspectiva de género. Ambas han sido rechazadas por la mayoría que conforman los grupos Nacionalistas Vascos y Socialistas Vascos, en el primer caso por considerar que los protocolos de seguridad funcionan correctamente en la actualidad, y en el segundo por entender que la propuesta está ya contenida en el propio Plan Estratégico del Transporte Público en Bizkaia 2018-2028, presentado en esta misma sesión por el hasta hoy Diputado Foral Vicente Reyes al inicio de su comparecencia.